Arabako Ibilbide Berdeen Sarea
Red de Itinerarios Verdes de Álava

GR 1 Bidezidor historikoa | Sendero histórico

1-3 Etapetarako Beste Aukera Bat
Variante etapas 1-3

Santikurutze Kanpezu - Bernedo
Santa Cruz de Campezo - Bernedo

Santikurutze Kanpezu eta Bernedo arteko aukera honek ibilbidearen tarte handi bat Nafarroako Genevilla, Cabredo eta Marañon herrietan igarotzen du, Kantabria-Toloño mendilerroaren iparraldean daudenak. Erdi Aroan Ega haraneko lurrak eta Errioxako merkataritza ibilbideak gaztelauen erasoetatik babesteko herrixka gotortu txikiak izan ziren.

Etapa pausoz pauso...

0 km

Santikurutze Kanpezu. Azpiko Putzuen bidetik atera eta erkamezti eta artadi polit baten bornean sartu. Askaren albotik pasako gara eta Genevillako hilerrira eta berehala erdigunera heldu arte jarraituko dugu.

4,51 km

Genevilla. Herriko barnealdea zeharkatuko dugu eta Cabredora doan auzoko bide zaharretik aterako gara. Bidea zuhaitzez inguratuta dago hurrengo herrira heldu arte.

6,74 km

Cabredo. Hilerrira helduko gara eta herriko barnealdeko kaleetatik ibiliko gara amaierara heldu arte. Errepidearen ezkerraldean Logroñoko bidea ateratzen da, zuhaixkez betetako hesi sakonez inguratuta. Bidea bidexka bihurtzen da eta estu doa soroetako muga nahaspilatuetatik Najas erreka gurutzatu arte. Behin pistan, jaitsi Marañoneraino.

10,64 km

Marañon. Igo parrokia elizaraino eta handik ur gordailuraino. Bertan Angostinarantz zuzentzen den bidexka polita hasten da, erkamezti-artadi itxi baten estalduraren azpian kokatuta. Basoaren adar artetik ateratzean, bidexka nekazal bidea bihurtzen da, jada Angostinatik oso hurbil.

13,75 km

Angostina. Kale Nagusitik jaitsi, errepidea gurutzatu hurbil dagoen San Bartolome baselizara zuzentzeko, Egaren beste aldean. Baselizara heldu baino lehen, eskuinera egingo dugu baso misto batetik gora egiten duen bidexka batean pista batera heldu arte. Horrek, hainbat bidegurutze igaro ondoren, Reajo de los Corros ibarrera eramango gaitu baita Bernedoko igerilekuetaraino ere.

MIDE

2	Ingurune naturaloren gogortasuna	5 h	Iraupena
2	Ibilbidean orientatzeko zailtasuna	460 m	Igo beharreko malda
2	Desplazamenduaren zailtasuna	320 m	Jaitsi beharreko malda
3	Behar den ahalegin maila	17,3 km	Distantzia (horizontalean)

Zer da MIDE?

MIDE ibilbideen gogortasun teknikoa zein fi sikoa baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.
MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira).

profila

P Informazio puntuak



1-3 Etapetarako Beste Aukera Bat
Variante etapas 1-3

Ibilbide orria_*Hoja de ruta*

Santikurutze Kanpezu - Bernedo
Santa Cruz de Campezo - Bernedo



Bukaera

17,30 km	Bernedo, Logroño kalea
16,70 km	Igerilekuak
15,98 km	Reajo de los Corros. Desbideratzea
15,17 km	Muinoa. Desbideratzea. Mendi bidea
15,03 km	Desbideratzea. Mendi bidea
14,11 km	Desbideratzea. San Bartolome ermita. Bidexka
13,95 km	Ega ibaia. Mendi bidea
13,80 km	Angostina, bidegurutzea errepidearekin
13,75 km	Angostina, Kale Nagusia
13,70 km	Desbideratzea. Harraska eta eliza
13,10 km	Desbideratzea. Lotura cividadera doan bidezidorrarekin
12,60 km	Desbideratzea
12,02 km	Desbideratzea. PR-NA 180 izenekoarekin loturarik eza
11,96 km	Desbideratzea. Lotura PR-NA 180 izenekoarekin
11,84 km	Desbideratzea
11,22 km	Bidegurutzea mendi bidearekin. Bidezidorra
11,02 km	Ur gordailua. Bidezidorra
10,91 km	Marañongo eliza
10,64 km	Marañon. Ega ibaia
10,36 km	Desbideratzea
9,63 km	Najas erreka. Desbideratzea
8,10 km	Desbideratzea. Bidexka
7,22 km	Cabredoko errepidea. Desbideratzea
6,74 km	Hilerria. Cabredo
4,74 km	Genevilla, Cabredoko bidea
4,51 km	Genevilla, Norte kalea
4,16 km	Hilerria
3,91 km	Desbideratzea. PR-A 62 izenekotik aldentzea
0,96 km	"Azpiko putzuak" aska eta iturria
0 km	Santikurutze Kanpezu. PR-A 62

Hasiera

Santikurutze Kanpezuko turismo bulegoa:
945 405 424
Antoñanako turismo bulegoa:
945 410 226
Informazioa eta trackak eskuratzeko:
www.alava.net

Gomendioak

- Planifikatu zure ibilbidea
- Saiatu beti besteren batekin joaten
- Ez atera seinaleztatutako ibilbidetik
- Garbi utzi ibilbidea
- Errespetatu flora eta fauna
- Oinetako erosoak erabili, eraman ura eta janaria
- Ez surik egin
- Utzi ohar bat jakiteko zer ibilbide egin nahi duzun eta zer ordutan

112 SOS DEIAK

KANPEZUKO ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA
CUADRILLA DE CAMPEZO-MONTAÑA ALAVESA

AÑANAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE AÑANA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava